

GABON ABESTIAK



LASKORAIN IKASTOLA



Hator hator

Hator, hator mutil etxera
gaztaina ximelak jatera
gabon gaua ospatuzeko
aitaren ta amaren ondoan
ikusiko dek aita parrezka
amaren poz atseginez

Eragiok mutil
aurreko danbolinari
gaztainak erre artian
gaztainak erre artian
txipli txapla pun
gabon gaua pozik igaro
dezagun
gaztainak erre artian
gaztainak erre artian
txipli txapla pun
gabon gaua pozik igaro
dezagun

Abenduak gaur 24garrena

Abenduak gaur hogeitalaugarrena
goazen artzaintxoak goazen
Belena
Aingeruak agertu dira eta
goazen Bethleem goazen lehen
bait lehen.

Jesus jaio da eta
goazen artzaiak alairik
horra, hementxe degu bera ta
ekin bat edo batzuek dantzari.

Zeruko goi goitik, lurreraino
jaitsi, pertsonari handik bakea
ekarri

Ardirik ederrenak, gaztaintxorik
onenak
ardirik ederrenak zuretzako
dira. (Bi aldiz)

Haur eder baten bila

Haur eder baten bila
Gabiltza zorutzen
Ta izarrak esan digu
Galdetzeko hemen

Jangoikoaren herri
Maite jerusalen
Esan zaiguzu laster
Jesus non jaio den. (Bi aldiz)

Izar bat agertu da
Dizdira zeruan
Keinuka ari zaigu
gabon gauerdian

Olentzero joan zaigu

Olentzero joan zaigu mendira lanera,
intentzioarekin ikatza egitera.
Aditu duenean Jesus jaio dala,
lasterka etorri da berri ematera.

Horra horra, gure Olentzero,
pipa hortzetan dula eserita dago.
Kapoiak ere baditu arraultzatxoekin
bihar meriendatzeko
botila ardoakin (bi aldiz)

Soinu jo ta dantzan dabil pozik jendea,
bidean erori zaigu artzain andrea
hauxe da nekea horrela ibiltzea,
saskia erori zaigu kapoiz betea.

Espartinak urratuta zapatarik ez
Hernion gelditu nintzen oineko minez.
Hauxe da nekea horrela ibiltzea,
hiru txiki ardorekin librako ogia.

Mendi aldetik datoz

La lara la la la la ...

Mendi aldetik datoz,
artzainak artzainak,
bildots bana harturik
bizkar gainean.

Gabon gauean kanta
kanta aleluia kanta aleluia
aleluia gabon gauean kanta
kanta aleluia gauean.

La lara la la la la ...

Haur txiki bat jaio da
Belenen Belenen,
guztion jainkoa da
poztu gaitezen.

Gabon gauean kanta

La lara la la la la ...

Joxepe eta Maria

Joxepe eta Maria
belengo herrian
ostatu bila dabilta
gau hotzaren erdian

Kalian gora kalia behera
jo batera ta bestera
etxe guztiak itxita daude
inork ez du nahi atera.

Leihoak ireki eta
batek die galdetzen
gaueko ordu hauetan zer
zabiltzate hemen.

Kalian gora kalia behera
jo batera ta bestera
zugana gatoz gau hontarako
ostatua eskatzera.

Alper alperrik zatozte
erantzun du barrendik
nik ez daukat lekurik eta
alde agudo hemendik

Kalian gora kalia behera
jo batera ta bestera
triste ta umil iritsi dira
noizbait estalpe batera.

Gaueko hamabietan
bi abere artean
munduko salbatzailea
jaio zaigu lurrean.

Kalian gora kalia behera
ez dabilta orain eskean
estalpetxoan kantari daude
biak Jesusen aurrean.

Argi Berriak

Argi berriak gauez piztu dira
Piztu dira piztu dira
Kanta kanta dezagun aleluia
Kanta aleluia

Kanta dezagun kanta aleluia
Aleluia aleluia
Kanta dezagun kanta aleluia
Kanta aleluia

Kax kax atean

Kax, kax, kax atean
nor dabil etxean
ikusi makusi
nor naizen ikasi

Praka zabalak, atorra urdina
Ai ene! Ez dakit ezer ez, ez, ez,
Ai ene! Kontatu mesedez.

Kax, kax, kax atean
nor dabil etxean?
ikusi makusi
nor naizen ikasi

Mutur zikina, txapela beltza
Ai ene! Ez dakit ezer ez, ez, ez,
Ai ene! Kontatu mesedez.

Kax, kax, kax atean
nor dabil etxean?
ikusi makusi
nor naizen ikasi

Pipa ahoan, ardoa bertan
bai, bai, bai, lehen orain eta gero
zu zara gure Olentzero,
bai, bai, bai, lehen orain eta gero
zu zara gure Olentzero.